

# ZiSare programa

ZiSare programa urte osoko proiektua da eta ikasturte osoan zehar maila batekin edo ikas-talde batekin egiten da lan. Ekonomia zirkularra ardatz, ikasleak protagonista bihurtuz ikastetxean sortzen dituzten biohondakinetatik konposterako prozesua ikasten da, etekin didaktiko bat ateraz.

Parte hartzeak inplikazio bat eskatzen du, ikasturtean zehar zeregin ezberdinak baitaude.

## HASIERA: Partehartzea erabakitzean

1. Konpostagailuaren **kokapena** zehaztu behar da. Eremu berde batean, inolaz ere ormigoiaren gainean. Ahal den neurrian ikastetxetik gertu, irisgarritasun egoki batekin eta itzaletan.
  - a. Guk muntatuko dugu behin kokapena erabakita.
2. **Materiala:** guk entregatuko dugu ikastetxean.
  - a. Zenbat organiko kubo beharko dira ikastetxean zehar jartzeko? Non jarriko dira?
  - b. Non gordeko da egituratzaile zakua, aireztagailua eta neurketak egiteko motxila?
3. Erabaki:
  - a. Proiektuaren **arduraduna** aukeratu. Nor izango da ikasturte osoan zehar gurekin kontaktuan egongo dena?
  - b. **Ikasle taldea** aukeratu. Nork hartuko du parte, zenbat talde, ikasle kopurua, adina.
  - c. Nongo **biohondakinak** jasoko dira? Hamaiketakorako ekarritakoak, jangelakoak...
  - d. Nola antolatuko dira eta zenbateko **maiztasunarekin** egingo dira isurketak konpostagailura? Gutxienez astean behin egin behar dira.
    - Ikastetxe bakoitzak dinamika ezberdina du: aste osoko hondakinak nonbait gorde eta ostiralean isurketak egin konpostagailura, astearte eta ostiraletan egin... Kontuan hartu isurketak egiten diren bakoitzean egituratzailea gehitu behar zaiola eta ondoren nahastu. Ez du balio isurketak soilik egiteak.
    - Gela osoak batera egin beharrean talde txikiagoetan banatzea gomendatzen da.
4. **Segurtasun orriak** eta **irudi baimenak** (izan ezker) sinatu.

## **MARTXAN**

### 1. Hezitzaile batekin tailerrak.

- a. **Formakuntza saioa:** ikasturte hasieran egiten den ordubeteko saioa da. Bertan konposta zer den eta nola sortzen den azaltzeaz gain, ikasturtean zehar zein lan egin beharko dituzten azaltzen zaie ikasleei. Saio honetan parte hartzea derrigorrezkoa izango da.
- b. **Laborategi tailerra:** bigarren hiruhilekoan egin ohi den ordubeteko tailerra da. Bertan ornodun eta ornogabeen bereizketa eginik, konposta sortzeko parte hartzen duten ornogabeak ezagutzen dira modu erabat praktikoan eta mikroskopia digitala erabiliz.
- c. **Hustuketa:** ikastetxe bakoitzaren erritmoan, konpostagailua bete ahala hustuketa tailerra egiten da isuritako biohondakinetatik konposta nola lortzen den ikusiz.

\*Batzutan ikastetxeak izan ditzakeen isurketak gutxi izanik ez da konpostagailu osoa betetzen, baina zikloaren itxiera garrantzitsutzat jotzen dugunez kurtso amaieraraino isurketekin jarraitzea gomendatzen da eta udara ostean behin konposta heldu denean hustuketa egitea.

- d. **Esperimentua:** Konposta nola erabili ikasteko, landareak lur eta konpost proportzio ezberdinetan landatuz esperimentu bat egiten da. Hilabeteetan landarearen eboluzioa ikusteko datuak hartuz jarraipena egiten da.

### 2. **Isurketak** gutxienez astean behin egin behar dira eta ZiSare motxilako tresnak erabiliz temperatura, pH, hezetasuna... neurtu eta landa koadernoan idatzi behar dira. Ikasturte amaieran datuak entregatu beharko dira (eskuz bete eta blogeko koaderno digitalera pasaz, zuzenean koaderno niri emanaz edo koadernoaren argazkiak bidaliz).

- a. Isurketak, zer bota (bi materialak garrantzitsuak dira):
  - Material hezea/berdea: jangelako-, hamaiketako hondakinak organikoak...
  - Material lehorra/marroia: guk entregatuko dizuegu, amaitu baino lehenago eskatu.
- b. Isurketak nola egin: behin ikastetxean bildutako biohondakinak konpostagailura botata, egituratzailea gehituko diogu (kantitate erdian, hau da, kubo bat material berde bakoitzeko, material marroi kubo erdia). Ondoren aireztagailuarekin nahastu behar da. Formakuntza saioan azaltzen da nola egin eta nola erabili tresnak.

### 3. Hilabetero hezitzailea **konpostagailuen kontrola** egitera hurbilduko da dena ondo doala ziurtatzeko, eta diagnostiko bat entregatuko da lortutako datuekin. Era berean, bisita horiei esker nola hobetu ikasteko gomendioak emango dira. Ez da beharrezkoa ikastetxeko norbait gurekin egotea egun horietan, hala ere, lehenago beti abisatuko da.

## KOMUNIKAZIOA

1. ZiSareko kontaktua **Olatz Igerategi** izango da; [olatz@artelatz.eus](mailto:olatz@artelatz.eus) edo 682768055 telefonoan. Ikasturtean zehar kontaktuan egon gara zalantzak argitu edo beharrezko materiala eramateko.
2. ZiSarek **blog** bat du: <https://zisaretxingudi.org/> Bertan programaren inguruko informazioa eta albisteak argitaratuko dira. Era berean unitate didaktikoak, landa koaderno digitala, esperimentuak... daude parte hartzaileentzat eskuragarri. Pasahitza behar da dokumentu hauek ikusteko, hortaz, idatzi kontaktura eta ZiSareko parte hartzaileak baldin bazarete pasahitza jasoko duzue. Irudi baimenak argazkiak blogean soilik erabiltzeko izango dira.

## ESKUAK ZIKINTZEN IKASI!

